

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Lemoiz

Aurkibidea

Udalerria: Lemoiz

Sarrera



Bizkaiko Uribe-Kosta eskualdearen barne dago. Jatorriz Elizatearen herrigunea Urizar auzoa zen, eta geroago Andraka eta Armintza mugartetara zabaldu zen. Iparraldean Bizkaiko Golkoa dauka, mendebaldean Gorniz eta Plentzia, hegoaldean Gatika, hego-sortaldean Jatabe eta ipar-sortaldean Bakio. Orain urte batzuk Lemoiz ekialdean Mungiarri zegokion. Lemoizek, berriz, Plentzia eta Gorniz artean dagoen Berreaga (Plentzia) lur-esparrua galdu zuen. 1970ko hamarkadan zentral nuklearraren inguruan gertatutako guztiarekin oihartzun handia hartu zuen herriak.

Argazkian Armintzako portua ageri da.

- **Biztanleak:** 949
- **Euskaldunak:** %59,43

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **6**
- Zintak: **7**
- Pasarteak: **41**
- Transkribatutakoak: **1**
- Audioak: **5**
- Bideoak: **36**

Proiektuak

- Dialektologia-EHU
- Diasporako Ahotsak
- Euskal Herriko Ahotsak
- IRALeren Bizkaiera Bilduma

Hizlariak

Rufino Arrola Ibergarai *Andrakako errementaria*

(1909-1996)



Mungian jaioa; hamar urterekin joan zen Lemoizko Andraka auzora. Ama Jatabekoa zuen eta aita Mungiakoa. Bederatzi urterekin soinua jotzen ikasten hasi zen. Hamalau urterekin bere lehenengo plaza eduki zuen urtebetez Lezaman, Karlos Matxain pandero-jotzailearekin batera. Eta, ondoren, beste hainbat plaza izan zituen. 18 urte zituela, errementari eta ferratzaile lanean hasi zen eta soinua alde batera utzi zuen. 40 urtez soinurik gabe egon zen. Bitarte horretan 11 seme-alaba hazi zituen. 58 urterekin soinua erosi eta berriz hasi zen jotzen. Orduetik aurrera hainbat erromeria eta txapelketatan parte hartu zuen. IRALEko irakasle eta ikasleek 1986an elkarrizketa egin zioten Barrikan eta trikiti-pieza batzuk ere jo zituen Eusebio Rueda `Eusebito´k lagunduta.

Angel Barturen Azkorra *Veneno* (1930)

1930. urtean jaio zen Armintzako portuko etxe batean. Aita bertokoa zuen eta ama Orabilles auzokoa. Bi neba eta hiru arrebatatik nagusienetakoa izan zen. Sei urte zituela Armintzako eskolan sartu eta hamaikarekin irten behar izan zen lanera joateko. Hamabi urterekin hasi zen aitari itsasoan laguntzen eta aita hil zitzaionean berak hartu zuen ontziaren ardura. Lau edo bost lagun ibiltzen ziren ontzian lanean eta denetarik arrantzatzen zuten arren (bisigua, lebatza...), itsaski asko harrapatu izan zutela kontatu zigun, batez ere otarraina. Honetarako, tresna ezberdinak ibiltzeaz gain, haiek eskuz egindako otzarak ere erabiltzen zituzten. Berarekin batera elkarrizketatu genuen [Ana Mari Mendizabalekin](#) ezkondu zen hogeita hamar urte inguru zituela. Itsasoan ezagutu zuen bere ogibidea eta bertatik bizi izan zen betidanik.

Elena Bilbao Eskoriatza (1922-2013)



1922. urtean jaio zen Aurteneko errotan. Aita bertokoa zen eta ama "Artamuzti"koa. Hamar seme-alaben artean gazteena izan zen. 13 urte izan zituen arte, goizero Lemoizko eskolara joaten zen eta arratsaldetan, aldiz, ama laguntzen zuen errota eta etxeko kontuekin. Aita, itsasgizona zen eta hilabete asko kanpoan ematen zituen, seme-alabek asko lagundu behar izan zuten errotan. Bertan bizi izan da betidanik, baina 22 urterekin ezkondu eta Urizar auzoko Baldaran baserrira bizitzen joan zen.

Victor Iturri Aurtenetxe *Señorito Kabratxo* (1935)

Jataben jaio arren, bost urte zituela Armintzara joan ziren bizitzera. Itsasgizona, arrantzalea. Hamahiru urtetik aurrera itsasora. Hamalaurekin atunetara. 1958tik aurrera nabigatzen. Hainbat elkarrizketa egin izan zaio IRALERen Bizkaiera Bildumarako.

Ana Mari Mendizabal *Zamakona Pilita* (1936)

1936. urtean jaio zen Armintzako portuko etxe zahar batean. Aita Armintzako arrantzale bat zen eta ama Ondarroan jaiotako etxeoandrea. Sei urte zituela, ama Santanderren zuten izeko bat jagotera joan zen eta bertan hil zen. Orduan, aitak Santanderrera bidali zuen Ana Mari, eskolara joan zedin. Hiru anai izan zituen eta alaba bakarra izanda, hamabi urterekin, aitak etxera ekarri zuen bertan lagundu ahal izateko. Bizi guztia lanean eman du eta lan ezberdin ugari egin izan zituen arren, itsasoarekin lotura zuten lanetan ibili izan da gehienetan: goizaldean portura heltzen zen arraina Bilboko "asentadore"ari saldu, handik etorri eta itsasoan apurtutako sareak konpondu, arraina garbitu, aparejoak konpondu... Bere umetako laguna izan zen [Angel Barturen](#) arrantzalearekin ezkondu zen.

Oier Pastor Alonso (1990)

Sopelan bizi izan zen 5-6 urtera arte eta gero Lemoizen (amarekin, aitaita-amemekin eta izekorekin). Psikologia ikasi zuen Deustun, Bilbon, eta neurozientzia masterra egin zuen Bartzelonan, bueltan, biologia molekularra eta biomedikuntza EHU. 2019an San Franciscora joan zen hiru hilabeteko egonaldia egitera, unibertsitatetik. Gero posdoca egin zuen bertan. Bikotea (Argentinan jaioa, baina 15 urettatik Gasteizen bizi zena) ere joan zen gero. Elkarrizketatu egin genionean, bi urteko ume bat zuten. San Franciscoko euskal etxean pilotan jokatzeko hasi zen Oier eta euskal komunitatearen parte bihurtu zen; bertsotan ere hasi zen San Franciscon, NABOK abian ipinitako Arnas Berri on-line bertso eskolan.



Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Itsasoa

1.1. Otarrainetan aitarekin

- **Hizlaria(k):** Barturen Azkorra, Angel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Andere

- **Erref:** LMZ-003/029
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:59:22. **Bukatu:** 01:00:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza
- **Laburpena:** Aitarekin otarrainetan egiten zuten. Eskuz igo behar ziren otzarak, sokari tiratuta. Gero, makina sartu zen. Batzuetan goizean otarrainetan eta arratsaldeko lo kuluxka egin eta gero txitxarrota joaten ziren. Txitxarroa karnatarako erabiltzen zuten.

Transkripzioa

-Ze bihar ein dozu aittegaz? Zein ein bihar izaten zendun umetan, sartu ziñenien?

-Ba, ze esango deutsut, ba! Langostatan, por ejemplo, ba eitten zan; langostatan ta... Kordelak bere [montoek] eta, ez zan oten makinillerik, kordelak altzateko, eskuez; ta gixon bi tenka kordelari, ta beste batzuk sarie altzaten beste kordel batez. Eta holan. Eskuez, e; igual berrogei braza edo berrogeta hamar braza, ure ure profundidadie. Ta zemat eta ur handiau, gogorra ekarteko. Ta eskuez. Gero makinillie etor zan, ta makinilliek altza eitten deitsu ur handin bere. Ha lehelau, han "había que apretar", [trainek] altza ta eguneko biharra [ein ta], ekarri jornaltxue ta etzera. Etorri, siestatxue bota, ta atsalden, txitxarrota joaten ginen, igual, koixten, hara etze ondora, bateltxuez, txitxarro kazean, ta koixi eitten gendun, karnatarako imitteko otzaran. Ta karnata freskue imitten zanen, haietan, jaulatan otzaratan, igarri eitten zan. Hurrengo egunean, igual, arraiñe gehau koixi.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Hamabi urterekin itzuli zen etxera (LMZ-003/002)

Sei urte zituela hil zitzaion ama eta hiru neba zaharrago eta bera geratu ziren aitarekin. Santanderrera eraman zuten izeko batek ikas zezan. Hamabi urterekin ekarri zuten aita etxera laguntza izateko.

2. Denetarik egindakoa da (LMZ-003/003)

Denetarik egin du: arraina eraman, aparailuak, neskatila lanak... Amaren familia guztia Ondarroakoa izan zen. Arrantzalea izan zuten aita eta ama etxeaz eta umeez arduratzen zen. Hori zen antzinako legea. nebak ezkondu zirenean, aitarekin geratu zen. Senarra ere arrantzalea izan da, inguruko gizonik finena.

3. Armintzako arraina Bilbora (LMZ-003/004)

Armintzako arraina eramaten zuten Bilbora. Goizeko lauretan jaiki, ohea egin eta arrainak gurdi batean kargatu eta Plentziaraino oinez. Han trena hartzen zuten Bilbora. Plazako asentadoreari saltzen zion arraina. Ordu biak inguruan etxera itzuli, gizonentzako bazkaria prestatu, eta behar zenean, portura joaten zen sareak konpontzera.

4. Batez ere lupinetan (LMZ-003/006)

Aitak itsasontzia (motor txikia) zuen; anaiak ere berarekin ibiltzen ziren; etxerako eta saltzeko adina arrain harrapatzen zuten. Barbarinak (salmoneteak), lupiak eta neguan bisiguak harrapatzen zituzten. Orduen ez zekiten bestelakoak arrantzatzen.

5. Itsas belarrak biltzen ziren udazkenean (LMZ-003/007)

Udazkenean, arrainik ez zegoenean, itsas belarrak biltzen zituzten. Lehortu eta Guadalajarako batzuei saltzen zizkieten, kremak, sendagaiak eta abar egiteko. Euskal kostaldeko beste herri batzuetan ere biltzen zituzten. Orain ere kanpotarren bat ibiltzen da horretan.

6. Kofradiako argazkiko emakume bakarra (LMZ-003/009)

Armintzako lehenengo neskatila bera izan da, kofradian izena emanda zegoen bakarra. Gizonei arrantzako gauzetan laguntzen diena da neskatila. 28 urte edo egon zen izena emanda, eta hortik jaso zuen erretiroa. Hamar urtean ibili zen Bermeora: karnatarako sardina izoztuak erostera joaten zen. Autoa bete-beteta itzultzen zen Armintzara. 28 urterekin atera zuen gidatzeko baimena.

7. Adituz ikasi sareak josten (LMZ-003/010)

Beti ikusi ditu etxean sareak. Lan lotua da sare konponketa, baina berak ikasi nahi izan zuen, eta begira-begira ikasi ere egin zuen.

8. Orratzak eta firua otzaran (LMZ-003/011)

Sareak josten erabiltzen zituen orratzak eta hariak erakusten dizkigu. Haria orratzean lotzen ere erakusten du. Sarearen arabera aldatzen da orratzaren neurria.

9. Sareetako zuloak (LMZ-003/013)

Apurtuta heltzen zen sarea itsasotik. Zabaldtu egiten zen, eta zuloa zegoen tokian troinua egiten zitzaion. Sarean kateatutako antxoa jatera joaten zen garda izeneko arraina, marrazo antzekoa, eta sareak apurtzen zituen hortz zorrotzak zituen eta. Ana Mari gaztea zenez, trebeagoa zen sareak josten.

10. Ogerleko bat ordubete (LMZ-003/014)

Orduko ogerleko bat ordaintzen zioten; bost ogerleko lau ordu. Bermeoko itsasontzi bat, Galerna izeneko" sartzen zen batzuetan eta hango patrioiak bikoitza ordaintzen zion. Nahi zuen arraina ere ematen zion; ondo hartzen zuten bera.

11. Oraingo sareginek erosoago egiten dute lan (LMZ-003/015)

Batzuetan, gauerako konpondu behar ziren sareak. Beste batzuetan, egunak ematen zituzten. Orain, Kantabria aldean ikusi du eguzkitakoaren itzalean ondo eserita konpontzen dituztela sareak.

12. Oraingo sareak gogorragoak (LMZ-003/017)

Asko galdu da sareginen lana. Oraingo sareak plastikozkoak dira eta gogorragoak dira. Bartzelonatik ekarritako sareak josten gau eta egun aritu ziren.

13. Saregin bakarria (LMZ-003/018)

Familiako andreak izaten ziren etxeko arrantzaleen laguntzaileak, baina berariaz sareak josten bera bakarrik aritzen zen. Antxoa sasoiari, kanpotik etortzen ziren kontserba-fabrikara lanera.

14. Aitagaz eta amagaz ikasitako euskara (LMZ-003/020)

Euskara gipuzkoarra, bizkaitarra, batua bereizten dute. Eurek batua ez dute ulertzen; apur bat bai. Eta euren euskara ez dute ulertzen zenbaitek.

15. Ingurukoekin ezkondu (LMZ-003/023)

Angelek dio bere adinekoak jeneralean inguruko neskekin ezkontzen zirela. Ez zirenez kanpora joaten, inguruko erromerietan aurkitzen zuten andregaiak. Onenak bertokoak. Kanpokoak berri guztiak ez dira jakiten. Ingurukoak berri txikitatik jakiten da, ordea.

16. Otarrain asko harrapatzen zen (LMZ-003/024)

Aitarekin hasi zen arrantzan. Atuna urruti egoten da, eta ez ziren joaten atunetan. Otarraina harrapatzen zuten; 20 edo 30 otarrain ekartzen zituzten egunean; baina gutxi ordaintzen zieten.

17. Hamar-hamabi urterekin itsasora (LMZ-003/025)

Ana Mari beti ibiltzen zen lanean; beti inorentzat. Armintzako aita izan zuen Angelek eta ama inguruko baserri batekoa, Orabille auzokoa. Hamar-hamabi urterekin hasten ziren aitarekin itsasora. Gutxi ikasten zuten; bik edo hiruk ikasten zuten kapitain edo makinista izateko. Bost neba-arreba izan ziren etxean.

18. Gela bakarrean herriko ume guztiak (LMZ-003/026)

Eskola bat denentzako; berrogei ume edo, egoten ziren gelan, neskek eta mutilak elkarrekin. Maisu batek esaten zuen denek ikas dezaketela, bakoitzak bere martxan, Baina Angelek dio alde handiak daudela. Ikasle txarra zen. Libururik ez; arbela zuten. Dena zen erdaraz.

19. Athleticen jarraitzaile sutsuak (LMZ-003/027)

Guardiak joan zitzaizkion motorrean zintzilik zuen Athleticeko bandera kentzeko edo Espainiakoarekin batera jartzeko agintzera. Elkarrekin hasi eta berehala egin ziren Athleticeko bazkide; elkarrekin joan izan dira San Mamesera, eta kanpoko partidatara ere joan izan dira. Ez da erraza Athleticeko bazkide egitea, eta garestia da.

20. Herriko mutil asko nabigatzera (LMZ-003/028)

Hamaika urterekin utzi zuen eskola Angelek. Itsasoko lanetan aitari laguntzen hasi zen. Armintza herri txikia da. Gainera, herriko mutil asko nabigatzera joaten ziren; etxean bat gutxiago izateko modua zen. Beste batzuetan, baserrietara bidaltzen ziren morroi. Herriko motor txikietan itsasoratzeke gizon gutxi geratzen zen.

21. Otarrainetarako otzarak (LMZ-003/030)

Otarrainak harrapatzeke otzaren argazkia erakusten dute. Norberak egiten zituen otzarak basoan ebakitako egurrekin.

22. Lehenengo plaza Lezamakoa, Matxainekin batera (LMZ-005/007)

Bederatzi urterekin hasi zen soinua jotzen ikasten. Hamalau urterekin Lezamako plaza eduki zuen urtebetez. Karlos Matxainek laguntzen zion panderoarekin. Bosna pezeta irabazten zuten. Matxain dantzan ere oso ona zen. Lezaman bukatutakoan, Deriora joaten ziren oinez. Bidean, Zamudioko tabernan sartzen ziren. Rufinok soinua jo eta Matxainek dantzan egin ostean, dirua batzen zuten. Lezaman baino diru gehiago irabazten zuten han. Gero Derion ere berdin. Deriotik bizikletan etxera, Andrakara.

23. Bizikletan ibiltzeko zaletasuna (LMZ-005/008)

Bizikletan ibiltzeko zaletasun handia izan zuen. Istripua izan zuen eta 66 egun egin zituen ospitalean. Gerora ere ibiltzen zen, baina azkenean utzi egin zuen.

24. 40 urte soinurik gabe; Donostiara soinua erostera (LMZ-005/009)

Hemezortzi urterekin tailerra (ferratokia) ipini zuen eta soinua alde batera utzi behar izan zuen. Izan ere, gauean soinua jotzetik berandu etxeratu eta ganadu mordoa izaten zuen, ferratzeko zain. 40 urtez soinurik gabe egon zen. Denbora hori pasata, Donostiara joan eta soinu berria erosi zuen 5500 pezeta ordainduta.

25. Txapelketen hasiera Urdulizen (LMZ-005/010)

Urdulizen trikitilari txapelketa zegoen irailaren 8an. Bakoitzak nahi zuena jo zezakeen. Suhi batek animatuta, parte hartu zuen eta bigarren geratu zen. Handik hilabetera beste txapelketa bat zegoen. Irratitik esaten jardun zuten Andrakako errementariak ere parte hartuko zuela. Berdinketa egin zuten. Horren ostean, herri guztietan hasi ziren txapelketak. 32 txapelketa irabazi zituen.

26. Garai bateko erromerietan hiru-lau soinu-jotzaile (LMZ-005/013)

Garai bateko erromeriak oraingoak baino alaiagoak ziren. Bazkalostean hiru-lau trikitilari batera hasten ziren jotzen, bata besteari konpetentzia egin nahian. Batzuek soltekoak bakarrik jotzen zituzten eta beste batzuek lotukoak ere bai. Jendeak hautsa ateratzen zuen dantzan!

27. Trikitia, Rufino Arrola eta Eusebitoren eskutik (LMZ-005/015)

Trikiti bat jotzen du Rufinok eta Eusebio Rueda `Eusebito´k laguntzen dio panderoarekin eta koplakantari.

28. Trikitia Bizkaitik Gipuzkoara (LMZ-005/017)

Trikitia Bizkaian sortu zen eta Bizkaiko trikitilariak eraman zuten Gipuzkoara. Gerraostean, Gipuzkoan jarraipena izan zuen trikitiak eta horregatik sortu ziren trikitilari asko eta onak. Bizkaian, berriz, geldirik egon zen. Adinekoek gain, bi trikitilari gazte oso onak daudela Bizkaian dio: Junkera eta Zabaleta bilbotarrak. Horiek gazteei irakasten diete eta urte gutxian Bizkaian ere trikitilari asko egongo direla iruditzen zaio. Gipuzkoarren trikitia jotzeko moldea, desberdina.

29. Pianozko soinuarekin ezin moldatu (LMZ-005/019)

Semea kanpoan ibili zen lanean eta etxera itzuli zenean denentzat opariak ekarri zituen. Aitari pianozko soinu handi bat ekarri zion. Ibili zen pixka bat soinu harekin, baina hura bost atzamarrekin jotzen da eta berak ezin ohitura hori aldatu. Azkenean saldu egin zuen. Soinu txikiak asko izan ditu.

30. Erromeria elurretan; garai bateko umorea (LMZ-005/021)

San Blas jai batzuetan, elurra zegoela, Barrikan erromerian bizitakoa. Garai batean dirurik ez, baina umore hobea izaten zen. Sasoi batean dantzan egiteko beldurra ere izaten zen, txapelokerrak zelatatzen egoten zirelako. Giroa aldatu egin da.

31. Santa Ageda batzen eta ezkontzetan (LMZ-005/023)

40 aldiz ibili izan da Santa Ageda batzen. Iluntzean hasi eta gau osoa pasatu ostean eguerdian bukatzen zuten. Etxerik etxe ibiltzen ziren, dirua batzen. Gero, meza ateratzen zioten Santa Agedari eta merienda bat egiten zuten. Maiatzean beste merienda bat egiten zuten; neskek merienda eman eta mutilek ardoa, kafea eta kopak ordaintzen zituzten. Ezkontzetan ere jotzen zuen soinua. Nola izaten zen.

32. Gerraostean etxea eta lur-saila ordaintzeko arazoak (LMZ-005/024)

Beti konforme eta pozik bizi izan da, urte estuak ere pasa arren. Hamaika seme-alaba hazi zituen. Gerratik itzuli zenean, etxea ordaindu behar izan zuen pixkanaka. Handik gutxira Torrecillako markesak lur-sail batzuk salgai ipini zituen eta, haiek erosteko, berriz zorretan sartu behar. Zenbat ordaindu zituen lurrak. Lagun batek utzi zion dirua. Patata erein zuen eta lehenengo urtean zorrak ordaintzeko beste atera zuen. Gerora, zuhaitzak landatu zituen. Pozik eta lasai bizi da.

33. Katua bere atzetik beti (LMZ-005/025)

Etxean beti bere atzetik ibiltzen den katu bat duela aipatzen du. Telebistakoak bera grabatzera joan zirenean, katua denbora guztian aldamenean izan zuen. Orduko kontuak; nolako planoak grabatu zizkioten.

34. Trikitia, Rufino Arrola eta Eusebitoren eskutik (LMZ-005/027)

Trikiti bat jotzen du Rufinok eta Eusebio Rueda `Eusebito´k laguntzen dio panderoarekin eta koplakantari.

35. Porrusalda, Rufino Arrola eta Eusebitoren eskutik (LMZ-005/029)

Porrusalda bat jotzen du Rufinok eta Eusebio Rueda `Eusebito´k laguntzen dio panderoarekin eta koplakantari.

36. Trikitiarekin Euskal Herritik kanpora (LMZ-007/002)

Burgosera joan izan da soinua jotzera. Villadiegogon egon zeneko kontuak. Hasieran ez zuten ulertzen hemengo musika. Medina de Pomar-en ere ibili izan da 3-4 urtean eta baita Benidorm-en ere. Euskal Herrian Gipuzkoa da nagusi, trikitiari dagokionean. Gasteiz aldean ibili izan dira, baina han dultzaina ohikoagoa da.

37. Inguruko herrietako euskara (LMZ-007/003)

Inguruko herrietako euskara. Lemoizen, Barrikan, Sopelan... antzera hitz egiten dute. Mungian jada desberdintasun txikiak sortzen dira eta Bakio aldean ere bai. Bermeon, Gernikan... desberdin hitz egiten da. Inguruetako euskararik onena Durango aldekoa iruditzen zaio.

38. Euskara batua ikasi beharrean, herrikoa "konpondu" (LMZ-007/004)

Euskararen etorkizuna. Euskara batua "gatxa" (zaila) iruditzen zaio. Umeek batua ikasten badute, etxean gero ezingo dutela inorekin erabili iruditzen zaio. Batua ikasi beharrean, herriko euskara "konpondu" egin beharko litzatekeela uste du.

39. Pozik bizitzeko sekretua (LMZ-007/005)

Jendea pozik bizitzeko, zer behar den: beharra egin eta dirua irabazi. Dirua badago, ez dago goserik. Dirurik ez badago, andre-gizonen artean ere eztabaidak sortzen dira.

40. Rufinok Bizkaiko trikitiaren etorkizuna nola aurreikusten zuen (LMZ-007/007)

Trikitiaren etorkizuna. Une horretan Gipuzkoa Bizkaiaren gainetik dagoela dio (ez adineko trikitilarien kasuan, baina bai gazteenean), baina hamar urtean egoera asko aldatuko dela aurreikusten du, Bizkaian ere badatozelako trikitilari gazteak eta onak (Kepa Junkera aipatzen du).

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-04-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com